

Igeldon.
2014ko urtarrilaren 30ean



Kaixo.

Nire G-ak ez zaitkit inoiz gustatu, egia esan. Batzuetan, buztantxo jartzeko diet; bestetan, ez dira bostak ateratzen; bestetan, makila luzeegia ateratzen zit. Egunaren arabera izan daiteke, nire G-aren forma; edo unean dudan unorearen arabera; edo dudan presaren arabera; edo idazten ari nartzaien honetako dudan jarrerarekiko. Baina nire G-a nirea da, eta zurearekiko desberdina da. Ulagaria den bitartean, zurea nirea bezain baliagarria da, nahiz eta desberdinak diren.

estu + hitz
Gutuna G-z idazten da. Noiz idatzi duzu zuk azkena? Nik ESKUTITZEN KUTXAN dudan azken gutuna 1998koa da (lehen eskutitz deitzen genien). Hurrenkero ez dut KUTXAN eskutitzik sartu, jaso ez dudalako; eta ez dut jaso, idatzi ez dudalako. Baina oraindik oraitzen dut eskutitza postontzian aurkitzen nueneko unea. Zinragaria izaten zen.

Aniztasun-mira, erromantizismoa, misterio- eta parentzia-mira... hoi guzti hoi da EGITASMO HONEN alde epela, txinparta bizteko ~~balio~~ izan zuen **berotasuna**. Et horregatik idatzi dugun eskutiz, aipatu berotasuna, gizarotasuna eta zintzotasuna ikus ditzaizuen. Jarraian, beriz, ordenagailuz idatzirik, egiteasmaren alde formala, **hotzagoa**, ez horregatik okerragoa edo garrantzia txikiagoa. Izan ere, **suaen magiak hotza eta beroa behar ditu.**

Eskenik arko hori egoteagatik, eta zu irakurtzeko gogoa izateagatik.

Adeitasunez,

Estu + hitz

MENDIZORROITZ G.E.

ESKUTITZAK EGITASMOA

Igeldo Herri Ikastetxeko **Mendizorrotz** Guraso Elkarte

I. EGITASMOA, LABUR

Helburua

Eskuz idazteko esparrua sortzea, gure seme-alabak idaztera motibatzeko.

Idea

Eskuz idatzitako gutunen ohitura berreskuratuz, munduan zehar dauden hurrekin eskutitzak elkar trukatzeari.

Munduan zehar egitasmoaren berri e-mailez zabaldu dugu, eta dagoeneko gutun-igorle mordoa lortu dugu!

Nola burutzen dugu

Eskutitza eskolara iristen da ⇒ zuzendariak edo irakasleak dagokion haurrari ematen dio, balorazio-orri batekin batera ⇒ haurrak etxera eramaten du ⇒ gurasoen edo senideen laguntzaz, gutuna erantzuten dute eta bidaltzen dute; eta balorazio-orria, beteta, guraso elkarteari itzultzen diote.

Sustatzailea

Mendizorrotz guraso elkarteak sustatutakoa, eskolaren laguntzarekin eta gurasoen parte hartze zuzenarekin gauzatua.

Lehen mailatik 6.era bitarteko haurrek hartzen dute parte, 32 haur, guztira (eskolako ikasleen erdiak, 64 baikara gure eskolan).

II. ERANSKINAK

1. Egitasmoa, eskolari eta gurasoei aurkeztu geniena (3. orrian).
2. Balorazio-orriaren eredua (7. or.) zein bertatik jasotako datuak (6. orrian).
3. Guraso elkarteari buruzko informazioa (8. orrian).



1. ERANSKINA. Egitasmoa, eskolari eta gurasoei aurkeztu genien moduan.

Lehendabizi eskolarekin jarri ginen harremanetan, buruan zebilkiguna kontatzeko. Eskola Txikia da gurea, eta eskolarekin dugun harremana estua da. Haseratik etxean lantzeko egitasmo gisa aurkeztu genuen, eta eskolak oso ongi hartu zuen. Eskutitzak etxean erantzun arren, eskolaren lana ezinbestekoa zaigu, egitasmo honetan ere.

Eta eskolako helbidea erabiltzeko* inongo trabarik jarri ez zigutenez, jarraian gurasoei kontatu genien egitasmoa zertan zetzan: lehendabizi guraso elkartearen ohiko bilera batean; ondoren, e-mailez eranskin honetan dituzuen ondorengo bi orriak bidaliz.

*gutunak, lehenengo aldian, eskolara iristen dira; umeak jaso eta handik aurrerakoa etxetik etxerako harremana bilakatzen da.

ESKUTITZAK EGITASMOA

Aurrekariak

Bigarren mailan idazten jakin behar omen dute gure haurrek. Eta letrak erakustearekin, eskuz nola idatzi erakusten diete, eskolan. Praktikatuz egin behar da, ordea, ia guztia bezalaxe; eskolan ez ezik, etxean.

Eta, arrazoiak anitzak izan daitezkeelarik, zailtasunak ditugu etxean, gure seme-alabek eskuz idazten jartzeko, eta hori izan da proiektu honen inspirazioa.

Helburua

Eskuz idazteko esparrua sortzea, gure seme-alabak idaztera motibatuz.

Idea

Eskuz idatzitako gutunen ohitura berreskuratuz, munduan zehar dauden haurrekin eskutitzak elkar trukatzeko.

Zer lortuko dugu, ideia aurrera eramanez gero

- ✓ Gure haurrek eskuz idaztea.
- ✓ Modu atsegingarrian honakoak lantzea: gramatika, geografia, hizkuntzak, kaligrafia, kultura aniztasuna, irudimena, trebetasuna eta adimena.
- ✓ Guraso eta seme-alabek elkarrekin zerbaitetan aritzea.
- ✓ Jende berria ezagutzeko aukera handitzea

Xehetasunak

- "Haur gutun igorleak" lortzeko, e-mailez zabalduko dugu gure ideia.
- Eskolako helbidea jarriko dugu, gutunak bertan jasotzeko, lehen aldian.
- Lehenengo mailatik seigarren mailara arteko umeen izenak zerrendatuko ditugu (soilik izena; abizenik, sexurik eta adinik zehaztu gabe), eta horiei zuzenduko zaizkie gutunak.
- Eskutitza eskolara iristean, umeak emango diote, etxera eraman dezaten. Hortik aurrerakoa gurasoen ardura izango da, eta haiek ikusiko dute nolako harremana nahi duten "gutun-igorlearekin" (hau da, zein maiztasunarekin idatzi, zein helbide erabili, zer idatzi edo bidali...)

- Eskutitzak euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez izan daitezke; ideia berri zabaltzeko e-maila ere hiru hizkuntza horietan idatzita egongo da. Hiru horiek aukeratu ditugu, guraso askok hitz egin baitezakete horietako bat, gutxienez; beraz, hizkuntza horietako batean idazteko arazorik duten haur eta gurasoei, gainerako gurasoek lagunduko diete.
- Proiektuaren arrakasta neurtzeko, guraso elkartearen zenbatzen joango da zenbat gutun iristen den, eta zenbat erantzuten den, baita zein hizkuntzetan izan diren ere. Beraz, gurasoei eskatzen diegu, arren, zenbat eskutitz idazten dituzten zenbatzen joan daitezen, baita zein hizkuntzetan izan diren ere.

Galderarik ohikoenak

- *Zer egingo dut nik ingelesez ez badakit?*

Ez zu eta ez zure seme-alabak ingelesa nahikoa menderatzen ez baduzue, jo guraso elkartearengana, eta haiek lagunduko dizute.

- *Zer gertatuko da nire semeak edo alabak 50 eskutitz jasotzen baditu, aste bakar batean?*

Gainezka egiten badigu, eskutitzak gainerako eskola txikiei eskainiko dizkiegu, erantzuteko gogorik badute, egin dezaten.

Hala ere, ez da ezer gertatzen eskutitz batzuk erantzuteke gelditzen badira.

- *Gerta daiteke umeren batek eskutitzik ez jasotzea?*


Oso arraroa litzateke umeren bat eskutitzik gabe gelditzea, eta baten batek besteek baino askoz gehiago izatea. Hala ere, gertatuko balitz, banatuko genituzke: nahiz eta eskutitzak ume jakin baten izenean iritsiko diren, ez da ezer gertatzen erantzunean jartzen bada "barkatu, XXXek ezin izan dizu erantzun, eta nik egingo dut".

- *Eta parterik hartu nahi ez badut?*

Ez erantzun etortzen zaizkizuen gutunei eta kito.

Eranskinak

Egitasmoaren berri emateko erabili genuen e-maila, honakoa da:



Igeldon, 2013ko urriaren 1ean



2. ERANSKINA. Balorazio-orriaren eredua (7. orrian) zein bertatik jasotako datuak (jarraian).

Eskutitz bat eskolara iristen denean, zuzendariak dagokion haurrari ematen dio, balorazio-orri batekin batera. Balorazio-orri hori, beteta, guraso elkartearen postontzian uzten du gurasoak edo haurrak.

Orriotan jasotako informazioari esker, badakigu nondik datozen gutunak, zein hizkuntzatan idatzita, adin-desberdintasunak eragiten ote duen, igorlea eta jasotzailea sexu berekoak ote diren... Kontuan izan, gutun-igorleak bilatzeko munduan zehar banatu genuen e-mailean ez genuen ez sexurik ezta adinik ere zehazten.

Oraingoz esan dezakeguna, zera da:

- Konturatu gara –feedbackari esker-, sexua ez zehazteari ongi deritzola jendeak, baina gutun-igorle askok nahi izan du jakin haurren adina, nahiago dutelako haien haurrak adin berekoekin elkar banatzea gutunak. Balorazio-orrietan sexuari eta adinari buruzko datuak jasotzen ditugu horren ondorioz, azterketa egiteko balioko duelakoan.
- Azaroaren 19an gurasoei eskatu genien zabal zezaten emailez mundu osora gure egitasmoa. Lehen eskutitza Sarak (4. maila) jaso zuen, azaroaren 25ean, Alkizatik (Gipuzkoa).
- Hasi eta hilabetera, abenduaren 19rako, 15 eskutitz jasota zituzten gure hurrek, guztiak Euskal Herritik. Arabatik bat, Gipuzkoatik bi eta gainerakoak Bizkaitik, bereziki Etxebarritik: ikusten denez, bertako eskolako klase bateko umeak Igeldora idaztera animatu ziren.
- Gabonetatik bueltan, urtarrilaren 7an, Euskal Herritik kanpoko lehen eskutitzak aurkitu genituen eskolan, Kataluniako Pirinioetatik etorriak.
- Hasi eta bi hilabetera, 45 gutun pasatxo jaso ditugu.
- Euskal Herritik jasotako eskutitz guztiak euskaraz idatzita daude.

Para poder extraer datos del proyecto "ESKUTITZAK", te rogamos rellenes el siguiente cuestionario (uno por carta)
"ESKUTITZAK" proiektutik datuak atera ahal izateko, mesedez, bete ondorengo (gutun bakoitzeko galdetegi bat bete)

Zuen haurraren izena

A. JASO DUZUN GUTUNARI BURUZKO DATUAK / DATOS SOBRE LA CARTA RECIBIDA

1. Noiz jaso duzu? (uu/hh/ee)

1. ¿Cuándo la has recibido?

2. Nondik jaso duzu?

Señala su procedencia
 . (✓)

2.

atzerritik /
extranjero

☐

Atzerritik bada, zein herrialdetik?
 Si es "extranjero", ¿de qué país?

Euskal Herritik /
Euskal Herria

☐

EH bada, zein herritik?
 Si has marcado EH, ¿de qué
 pueblo?

3. Zein hizkuntzatan jaso duzu?

3. ¿En qué idioma la has recibido?
 . (✓)

Euskara
 Gaztelania
 Ingelesa
 Besterik?
 Otros

☐
☐
☐
☐

B. GUTUN IGORLEARI BURUZKO DATUAK / DATOS SOBRE EL REMITENTE

4. Neska ala mutila da?

4. Sexo (✓)

neska
 mutila
 ez dakit

☐
☐
☐

5. Zenbat urte ditu? / 5. Edad

6. Pertsona horrek idazten dizun lehen aldia da?

(✓) 6. ¿Es la primera vez que te escribe esa persona?

Bai
 Ez

☐
☐

7. Erantzun diozu? (✓)

7. ¿Le has contestado? (✓)

Bai
 Ez

☐
☐

Gracias por tu colaboración / Eskerrik asko zure laguntzagatik

Utzi horri hau guraso elkartearen gutunontzian, edo helarazi guraso elkarteko norbaiti
 Deposita este cuestionario en el buzón del AMPA, o hazlo llegar a alguien del AMPA

3. ERANSKINA. Guraso elkarteari buruzko informazioa.

Gipuzkoako Eskola Txikietako bat da Igeldoko Herri Ikastetxea. 2013-14. kurtsoan 64 haur ditugu, eta horietatik 32 lehen mailatik gora daude, 6. mailara arte.

Eskola Txikiek badituzte aparteko ezaugarriak, eta horietako bat da gurasoen parte hartzea handiagoa dela, halabeharrez. Ez dugu eskola handiek dituzten azpiegituretarik eta ezin dugu programa askotan parte hartu, ikasle nahikorik ez dugulako. Hortaz, eskolak eta guraso-elkarteak indar berezia egin behar dute gabeziarik ez izateko, eta txikitasunetik handitasuna lortzeko.

Baina, abantailarik ere badugu, noski. Eskola Txikia izanik, gurasook hurbil ditugu eskolako zuzendaritza, irakasleak eta langileak, eta gurasoen arteko harremana estua da, derrigorrez. Herrian dugun eskola bakarra da, eta herriarentzat eskola beharrezkoa den moduan, herria eskolaren iturburu da.

Guraso Elkarateak honako lanak egiten ditu, besteak beste:

- Zubi-lana: eskolaren eta gurasoaren artean; herriaren eta eskolaren artean; Gipuzkoako gainerako Eskola Txikien eta Igeldoren artean; Baikara, Ehige...
- Antolatzen ditu eta diruz laguntzen ditu hainbat ekintza: goizeko zaintza zerbitzua; Foru Aldundiko eskolen igeriketa programarako behar den autobus-zerbitzua; herri txikien arteko futbol txapelketa mistoko taldea; ...
- Eskolaren osagarri izaten saiatzen da: kirol arloko materiala erosiz; patioan jolasak eta apaingarriak marraztuz; eskolako proiektuetan parte hartuz; ...
- Herriko ludoteka eta haurtxokoa kudeatzen ditu, Igeldoko haur kultur taldearekin batera.
- Euskararako esparrua diren mendi irteerak antolatzen ditu, Igeldoko mendi irteera bakarrak.
- Parte hartzen du eskolak dituen batzordeetan; parte hartzen du herriaren ospakizunen antolakuntzan.
- Beste hainbat: informazioa eta laguntza eskaintzen die gurasoei; Santo Tomasetan eta kurtso amaieran festa antolatzen du, eskolan; gabonetan, Txuri Urdinera irteera prestatzen du; Eskola Txikien Festarako autobusa antolatzen du; diru-laguntzak bideratzen ditu; ...

MENDIZORROTZ, Igeldo Herri Ikastetxeko Guraso Elkartea

mendizorrotz@eskolatxikiak.org